



## **EBAZPENA (16/2009 esp., IBILGAILUAK MANTENTZEKO ARLOA)**

### **Osoko bilkura**

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, kidea

José Antonio Sangroniz Otaegi jauna, idazkaria

Vitoria-Gasteizen, 2010eko urriaren 8an

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Juan Luis Crucelegui Garate jauna txostengile dela, ebazpen hau egin du IBILGAILUAK MANTENTZEKO ARLOARI buruzko 16/2009 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, Gipuzkoako Automozio Enpresen Elkarteak (AEGA) ipini zuen salaketa baten ondorioz. Salaketa horretan adierazi zen Arrasateko Udalak, ustez, lehia murrizteko jardunbideak egin zituela.

### **AURREKARIAK**

1. 2009ko otsailaren 4an, GIPUZKOAKO AUTOMOZIO ENPRESEN ELKARTEAREN (AEGA) izen eta ordezkartzan jarduten zuen Juan M<sup>a</sup>. López Osa jaunak sinatutako idazkia sartu zen Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegian. Hona hemen, hitzez hitz:

*“Gipuzkoako Automozio Enpresen Elkarteko (AEGA) idazkari nagusia naizen aldetik, El Diario Vasco egunkarian (Debagoieneko edizioan) Arrasateko Udalaren ibilgailuak mantentzeko arloari buruz agertutako informazioa bidali dizut. Bertan, egunkarian azaldu zenaren arabera, ibilgailuak konpondu eta mantentzeko lan guztiak egin daitezke.*

*Nire ustez, ibilgailuak konpontzeko jarduera hori guztiz kontrakoa da 1457/1986 Dekretuan horri buruz egindako araudiarekin eta, beraz, nire iritziz, lehia desleialeko egintzak dabilta sustatzen tailerren sektorean, are larriagoak herri-administrazio batek egiten dituelako, eta, zuzenean edo zeharka, funts publikoekin finantzatzen direlako.*

*Beste alde batetik, jokabide horrek segurtasun-gabezia onartezina eragiten du ibilgailuen eta herri-bideen erabilerari dagokionez; izan ere, testuan bertan azaltzen denaren arabera, era guztietako konponketak*



*egin daitezke eremu horretan eta, ondorioz, segurtasun-elementuei eragiten dietenak ere egin daitezke.*

*Azaldutako guztia dela eta, mesedez eskatu nahi dizuet aipatutako arloan egiten diren jarduerak ikertzeko neurri egokiak har ditzazuela eta, hala badagokio, bidezko tramiteak egin ondoren, instalazio hori itxi dezazuela, idazki hau horren aurkako SALAKETA formalizat hartuta. Era berean, egiten dituzuen jardueren berri emateko eskatu nahi dizuet, alderdi interesdun garen aldetik.”*

Idazkiarekin batera, 2009ko urtarrilaren 20an eta 2009ko urtarrilaren 28an *Diario Vasco* egunkarian agertutako bi albiste bidali ziren, albiste horiek Arrasateko Udalaren ibilgailuak mantentzeko arloari buruzkoak zirela.

2. 2009ko otsailaren 9an LDEAk aipatutako salaketa bidali zion LDEZri, ondore egokiak izan zitzaiz.
3. 2009ko martxoaren 5ean LDEZk honi buruzko beren-beregizko erabakia eman zezala eskatu zion salatzaileari: ea lehiaren defentsari buruzko espedientea irekitzeko eskatzen zuen, alderdi interesdunak eskatuta. Hala balitz, bidali zitzaion formularioa guztiz bete behar zuela esan zitzaion.
4. 2009ko maiatzaren 27an salatzaileak LDEZra bidaltzeko idazkia aurkeztu zuen postetxean, espedientean interesduntzat hartzeko eskatuz, eta bertan sartu beharreko beste dokumentu batzuk ere bidaliz.
5. 2009ko ekainaren 5ean, Ekonomia eta Plangintzako zuzendariaren ebazpenaren bitartez, informazio erreserbatuaren instrukzio-fasea hasiko zela erabaki zen, hala balegokio bidezko zehapen-espedientea hasi aurretik, Arrasateko Udalaren ibilgailuak mantentzeko arlorik zegoen ikusteko.
6. Informazio erreserbatuaren prozedura-fasean, honako informazio hau eskatu zuen LDEZk:
  - A) 2009ko irailaren 15ean honako informazio hau eskatu zion Arrasateko Udalari: 1) Ibilgailuak mantentzeko arloari buruzko datu orokorrak. 2) Herritarrek egin ditzaketan jarduerak. 3) Udalak egiten dituen jarduerak. 4) Sortu izanaren arrazoiak. 5) Arloa sortzeko oinarria izan zen udal-eskumena.

2009ko urriaren 2an Arrasateko Udalaren idazki bat sartu zen LDEZn, informazio-eskea betez. Bertan honakoa adierazi zuen, labur-labur:

- 1.- Ibilgailuak mantentzeko arloa instalazio mugatua da, aire zabalekoa, eta Arrasate udalerriko Garagartza auzoan dago, GI-2620 errepidearen ezkerreko aldean, Aramaiorako bidean. Gune hauek ditu: aparkalekua, garbiketa-gunea, lehortze-gunea, zuloaren eta



olioa aldatzeko gunea, erabilitako olio minerala biltzeko andela, garbiketa-urak biltzeko sistema eta zuloaren guneko urak bildu eta arazteko sistema. 2009. urtean eraikin txiki bat instalatu da, eta bainu publiko bat prestatu da bertan, arloari lotu gabe, bertatik dabiltzan pertsonentzat; halaber, bulego bat ere egin da instalazioak garbitu eta hondakinen kudeaketa-lanak egiten dituen langilearentzat.

- 2.- Gune bi bereiz daitezke ibilgailuak mantentzeko arloan: Ibilgailuak garbitzeko gunea, eta zuloaren eta olio aldatzeko gunea. Lehenengoa ibilgailuak garbitzeko erabiltzen da, eta bigarrena ibilgailuetako olio aldatzeko prestatutako gunea da, baina ez da konponketa-lanak egiterik aurreikusi. Ez dago horretarako bitarteko, makina edota tresneriarik.
  - 3.- Arrasateko Udala arduratzen da irekitzeaz, garbitzeaz eta sortzen diren hondakinak kudeatzeaz.
  - 4.- Ibilgailuak mantentzeko arloa sortzearen bitartez, udalerrian ezkutuko olio-aldaketak egitea saihestu nahi izan du Arrasateko Udalak, bai eta ibilgailuak erreka, iturri edo antzekoetan garbitzea ere, lurzoruak, ubideak eta urak kutsatzea saihestuz.
  - 5.- Ibilgailuak mantentzeko arloa sortzeko araudi-oinarria Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2 artikulua izan da, honakoa baitio bigarren atalak: *Udalerriak, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu: f) Ingurumena babestea.*
- B) 2009ko urriaren 8an LDEZk honako informazio hau eskatu zion Gipuzkoako Automozio Enpresen Elkarteari: 1.- Arrasate udal-mugartean dauden ibilgailuak konpondu edota mantentzeko tailerren kopurua, guztira, 2007, 2008 eta 2009. urteei dagokienez. 2.- Udal-mugartean dauden ibilgailuak konpondu edota mantentzeko tailerren kopurua, guztira, 1994. urtetik 2009. urtera.

2009ko urriaren 21ean Gipuzkoako Automozio Enpresen Elkartearen idazki bat sartu zen LDEZn, aipatutako informazio-eskea betez. Eskabide horri erantzunez adierazi da elkarteak ez daukala eskatutako informazioari buruzko daturik.

- C) 2009ko urriaren 23an LDEZk honako informazio hau eskatu zion Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoa Gipuzkoako lurralde-ordetzkaritzari: 1.- Arrasate udal-mugartean dauden ibilgailuak konpondu edota mantentzeko tailerren kopurua, guztira, 2007, 2008 eta 2009. urteei dagokienez. 2.- Udal-mugartean dauden ibilgailuak konpondu edota mantentzeko tailerren kopurua, guztira, 1994. urtetik 2009. urtera.



2009ko azaroaren 19an Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzaren idazkia sartu zen LDEZn. Idazki horren bitartez, Eusko Jaurlaritzaren sail horren mende dagoen Ibilgailuak Konpontzeko Tailerren erregistroan inskribatuta dauden tailerren guztizko kopurua jakinarazi zuen.

7. 2009ko abenduaren 23an, Gipuzkoako Automozio Enpresen Elkarteak Arrasateko Udalaren kontra salatutako jokabideei dagokienez zehapen-espeditentea ez hasteko proposamena bidali zion LDEZk Auzitegi honi.
8. Auzitegiak 2010eko urriaren 8ko batzarrean eztabaidatu eta erabaki zuen gaia, Juan Luis Crucelegui Garate jauna zela txostengilea.
9. Honako hauek dira interesdunak:
  - Gipuzkoako Automozio Enpresen Elkarte (AEGA).
  - Arrasateko Udala.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

10. Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 49.3. artikulua honako hau dio: *Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketen Zuzendaritzak proposatuta, lege honen 1, 2, eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabakitzeko aukera izango du, eta ordura arteko jarduerak artxibatzei aukera, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.*
11. Lehiaren Defentsari buruzko aipatutako legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera, *Lege honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari eta bertako zuzendaritza-organoei buruz egiten diren erreferentziak, hain zuzen ere eginkizun, administrazio-ahalmen eta prozedurei buruzkoak, autonomia-erkidegoetan arlo horretako eskumenak dituzten instrukzio- eta ebazpen-organoei buruzkoak ere badirela ulertuko da, erreferentzia horiek lege honen 13. artikuluan aurreikusitako eskumenen ingurukoak direnean.*
12. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri zituen apirilaren 12ko 81/2005 Dekretuak, alde batetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia eta, bestetik, Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua bereizten ditu. Biak, beren eginkizunei dagokienez, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak ezarritakora egokitu beharko dira. Hala, Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari dagokio jarduerak artxibatzeari buruzko ebazpena ematea, legea



urratu izanaren zantzurik ez dagoela uste duenean, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 44. artikuluekin bat etorritz.

13. LDEZk LDEA honi azaldutako ebazpen-proposamenak dio, salaketa aztertuta, eta emandako datuak egiazkoak diren egiaztatzearen egin den informazio erreserbatuaren ostean, ez dela ikusi Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 1., 2. eta 3. artikulua urratu izanaren zantzurik dagoenik.
14. Aurretiaz, aipatutako elkarteak jakinarazi dituen gertakariekin lotuta LDEA honek duen eskumen-eremua zehaztu behar da, bai eta elkarte horrek gertakariari buruz aldarrikatutako iritziak ere. Elkarteak honakoa adierazi du Arrasate udalerriko Garagartza auzoan dagoen ibilgailuak mantentzeko arloan garatzen den konponketa-jarduerari buruz:
  1. Guztiz kontrakoa da 1457/1986 Dekretuan horri buruz egindako araudiarekin.
  2. Lehia desleialeko egintzak sustatzen dabilta tailerren sektorean.
  3. Segurtasun-gabezia onartezina eragiten du ibilgailuen eta herri-bideen erabilerari dagokionez.

Horri dagokionez, LDEA honek adierazi behar du Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legeak eta Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia sortu eta Lehiaren Defentsarako Zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoan izango dituen eginkizunak ezarri zituen 81/2005 Dekretuak auzitegi honi ezarri diola lehia murrizteko jokabideen arloan, hau da, lege horren 1., 2. eta 3. artikulua urratzeko moduko jokabideen arloan, Lehiaren Defentsari buruzko aipatutako legean xedatutakoa aplikatzeko lana. Horrenbestez, aztertzen gabiltzan kasuan, LDEA honek bertako gertakariak aztertzeko eskumena baino ez du, gertakariok lehiaren defentsari buruzko araudiarekin bat datozen ikusteko, eta alde batera utziz beste edozein iritzi.

Lehiaren Defentsari buruzko Legeak Lehia defendatzeari buruzko I. tituluaren I. kapituluaren deskribatzen ditu lehia askearen aurka egiteagatik debekatuta dauden jokabideak. Debekeatutako jokabideen artean, kolusiozko jokabideak (1. artikulua), nagusitasunezko egoeraren abusua (2. artikulua) eta lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea (3. artikulua) bereizten ditu. Era berean, 4. artikuluan dio debeku horiek ez zaizkiela aplikatuko lege baten aplikazioaren ondorio diren jokabideei. Hala eta guztiz ere, arestian aipatu diren debekuak lehia murrizten duten egoera jakin batzuei ezarriko zaizkie, hau da, administrazioaren beste ahalmen batzuk gauzatzearen ondoriozkoak direnei, edo aginte publikoen edo enpresa publikoen jardueraren ondoriozkoak direnei, lege-babesik gabe burutzen badira.

15. Aipatutako elkarteak adierazitako gertakarien inguruan LDEA honek duen eskumena zehazteaz gain, LDEAk Lehiaren Defentsari buruzko Legearen aginduekin alderatuko duen errealitate faktikoa ere zehaztu beharko da.



Lehenengo eta behin, kontuan izan behar da Gipuzkoako Automozio Enpresen Elkarteak (AEGA) *El Diario Vasco* egunkarian (Debagoieneko edizioan) agertutako albiste bat jakinarazi diola LDEZri. Albiste horretan Arrasate udalerriko Garagartza auzoan dagoen ibilgailuak mantentzeko arloa aipatzen da.

Elkarte horretarako ordezkariak adierazi du aipatutako artikulutik ondorioztatu dela ibilgailuak mantentzeko arlo horretan ibilgailuak mantentzeko eta konpontzeko edozein lan egin daitekeela.

Horrekin lotuta, Elkarte horren ordezkariak iritzi juridikoa eman zuen, bertan garatzen den jarduerak ibilgailuak, beren ekipoak eta osagarriak konpontzen dituzten tailerretako jarduera industrial eta zerbitzu eskaintza arautzen duen 1457/1986 Errege Dekretua urratzen duela adieraziz. Halaber, ekintza horrek automobil-tailerrekiko lehia desleiala eta bideko segurtasun-gabezia eragiten dituela adierazi zuen.

LDEZk salaketa formala egiteko eskatu zion elkarteari, Lehiaren Defentsari buruzko Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuaren 25. artikuluan eta I. eranskinean ezarritako baldintzen arabera, baina ez da inolako aurkezpen formalik egin. Gauzak horrela, eskabidean atzera egin zuela adieraz lezakeen LDEZk, baina ez zuen hala egin, lehiaren aurkako jokabideen arrazoizko zantzuak zeudela ondorioztatu zuelako. Hori dela eta, informazio erreserbatuaren prozedura-fasea hasi zuen, artxibatze eta zehapen-prozedurarik ez hasteko ebazpen-proposamenarekin amaitu dena.

16. LDEA honek aztertzeke ipini den espedienteko dokumentaziotik ondorioztatu da ibilgailuak mantentzeko arloa Arrasate udal-mugartean dagoen ekipamendu publikoa dela. Zehatz-mehatz, instalazio mugatua da, aire zabalekoa, eta Garagartza auzoan dago, GI-2620 errepidearen ezkerreko aldean, Aramaiorako bidean, errepidearen eta Aramaiona ibaiaren artean. Instalazioak honako gune hauek ditu: aparkalekua, garbiketa-gunea, lehortze-gunea eta zuloa. Funtzionamendu erregulatua izateko, garbiketa-urak biltzeko sistema eta saneamendu-zuloaren urak bildu eta arazteko sistema ezarri dira.

Herritarrek ibilgailuak garbitzeko eta olio aldatzeko jarduerak egin ditzakete instalazio horietan. Aipatu berri den azken jarduera hori egiteko, zulo bat ezarri da, eta olio biltzeko ontzia eta erabilitako olio isurtzeko hustubidea (andel batean biltegitratzen dena) ipini dira. Arrasateko Udaleko alkateak adierazi duenez (42-47 folioak), ibilgailuak mantentzeko arloak ez du konponketa-lanak egiteko aukerarik ematen. Udal-instalazio horrek ez dauka ibilgailuak konpontzeko tailerra izateko beharrezko baldintza material eta pertsonalik eta, ondorioz, ez dago behar bezala inskribatuta horri buruzko administrazio-erregistroan, eta ez dago gaituta ibilgailuak konpontzeko tailerraren jarduera garatzeko, ibilgailuak, beren ekipoak eta



osagarriak konpontzen dituzten tailerretako jarduera industrialia eta zerbitzu eskaintza arautzen duen 1457/1986 Errege Dekretuaren babespean. Horrela bada, konponketa-tailerren baldintzak egiaztatzeko eskumena duen administrazio-organoak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko Gipuzkoako lurralde-ordezkaritzaren bitartez, honakoa adierazi zuen: Lurralde-bulego horretako Industria Administrazioiko teknikariak egindako egiaztapen-bisitan ondorioztatu da Arrasaten dagoen ibilgailuak mantentzeko arloan garatzen den jarduera ezin dela sartu ibilgailuak, beren ekipoak eta osagarriak konpontzen dituzten tailerren araudiaren barruan (32 folioa).

Hau da, Garagartzan dagoen ibilgailuak mantentzeko arloa instalazio publikoa da, eta ez dauka ibilgailuak konpontzeko tailerra izateko beharrezko baldintza material, pertsonal eta administratiborik eta, ondorioz, ez dago behar bezala inskribatuta horri buruzko administrazio-erregistroan, eta ez dago gaituta ibilgailuak konpontzeko tailerraren jarduera garatzeko, ibilgailuak, beren ekipoak eta osagarriak konpontzen dituzten tailerretako jarduera industrialia eta zerbitzu eskaintza arautzen duen 1457/1986 Errege Dekretuaren babespean. Alegia, Arrasaten dagoen ibilgailuak mantentzeko arloa ez da ibilgailuak konpontzeko tailerra, hori arautzen duen araudian xedatutakoaren arabera; Arrasateko Udalak sortutako udal-titulartasuneko instalazioa baino ez da, Arrasateko herritar guztien esku ipini dena, Arrasateko herritarrek modu autonomoan egindako motor-ibilgailuen garbiketetatik eta ibilgailuotan egindako olio-aldaketetatik eratorritako hondakinak bideratu ahal izateko.

Horrenbestez, LDEZk LDEAk iritzia emateko azaldutako espedientean dagoen dokumentaziotik ondoriozta daitekeen gauza bakarra da ibilgailuak mantentzeko arloa ez dela ibilgailuak konpontzeko tailerra, eta ez duela kategoria hori eskuratzeko baldintza material, pertsonal eta administratiborik.

17. Ibilgailuak mantentzeko arlo hori 1994. urtean instalatu zuen Arrasateko Udalak Garagartza auzoan, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25.2 artikuluko f) eta l) letrek emandako nahitaezko eskumenak betez, partikularrek herri-bidean egin litzaketan ibilgailuen garbiketa eta olio-aldaketetatik eratorritako hondakinak ahal den neurrian zentralizatu eta lege ezarritakoaren arabera bideratu ahal izateko. Horrela, lan horiek herri-bidean ezkutuan egiteko asmoa kendu nahi die burutik Udalak herritarrei, eta lan horietatik eratorritako hondakinekin herri-bidea, ibaiak eta errekek kutsatzea saihesten du, jarduera ekonomikoa dela adieraziko lukeen inolako ordain ekonomikorik gabe. Udal-ekipamenduaren helburu bakarra ingurumena babestea da, eta inola ere ez da herritarren baliabide ekonomikorik eskuratu nahi instalazioa erabiltzearen ondorioz.

18. Aipatu diren iritzia faktikoei dagokienez, LDEAk Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearekin alderatu behar ditu. Elkarrekin adierazi du udal-



instalazio horretan garatzen diren jarduerak lehia desleiala eragiten dutela. Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 3. artikulua debekatutako jokabideetat hartzen du, besteak beste, lehia askea egintza desleialen bidez faltsutzea. Hala eta guztiz ere, LDEA honek uste du LDEAk frogatutakotzat hartutako gertakariak egiaztatu egin behar direla, eta ez bakarrik Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 3. artikuluari dagokionez, baizik eta lege-arau horren 1. eta 2. artikuluei dagokienez ere.

Lehiaren defentsari buruzko legearen 1. artikulua debekatutako jokabideetat hartzen du *taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengoa bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea*. Premisa gisa, arau hori aplikatu ahal izateko ezinbestekoa da alde biko edo alde anitzeko adostasunezko elementuren bat egotea. Halaxe adierazi zuen dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak hainbat ebazpenetan, esaterako 2000ko martxoaren 22ko ebazpenean (r 397/99 espedientea, Canteras del Bierzo), 2002ko urtarrilaren 17ko ebazpenean (510/01 espedientea, Fujifilm), 2001eko ekainaren 11ko ebazpenean (490/00 espedientea, Repsol), etab.

Aztertzen gabeztan kasuan ez da inolako akordiorik ondorioztatu, ez alde biko, ez taldekoa. Aldiz, ingurumena babesteko eta hondakinen kudeaketako alorrean legeak ematen dizkion eskumenak erabiliz toki-erakunde batek hartutako alde bakarreko erabakia da. Gauzak horrela, esan litekeen gauza bakarra da ez dela inola ere urratu Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 1. artikulua.

19. Nagusitasunezko egoeraren abusuari dagokionez, Lehiaren Defentsari buruzko aipatutako Legearen 2. artikulua debekatu egiten du *enpresa batek edo batzuek duten nagusitasunezko posizioa gehiegikeriaz ustiatzea merkatu nazional osoan edo horren zati batean*. Debekatuta dagoena ez da merkatuan nagusitasunezko egoera izatea, baizik eta egoera horren abusua egitea.

Nagusitasunezko egoera hori enpresa batek izan behar du, publikoa zein pribatua izan, bere helburuak betetzeko jarduera ekonomikoak garatzean. Enpresaren kontzeptua zabal dago definituta<sup>1</sup>. Merkatuan jarduera ekonomikoren bat modu autonomoan garatzen duen eskubideen subjektu oro hartzen du, bere estatutu juridikoa edozein dela ere<sup>2</sup>. Erabakigarria ez da forma juridikoa, baizik eta jarduera ekonomikoa garatzea, kudeaketaren eremuan jarduten duenean. Alderantziz, enpresa kontzeptutik kanpo uzten da jarduera botere publikoa garatzeko bakarrik denean.

<sup>1</sup> EEJAren 1987ko ekainaren 16ko epaia (C-118/85, Batzordea/Italia) eta LDAren 1997ko urtarrilaren 29ko ebazpena (r 179/96 espedientea, Espainiako Gurutze Gorria).

<sup>2</sup> EEJAren irailaren 21eko epaia, C-67/96, Albany International.





Kasu honetan aztertu behar dugu Arrasateko Udalak eragile ekonomiko gisa ala enpresa gisa jarduten duen. Horretarako, adierazitako elkarteak aipatzen duen merkatu adierazgarria zehaztu behar da.

Elkarteak Arrasate udalerriko geografia-eremuan ibilgailuak konpontzeko tailerren merkatu adierazgarrian ustez egindako lehia desleialaren jokabidea jakinarazi zion LDEZri. Ibilgailuak konpontzeko tailerren kontzeptua 1457/1986 Errege Dekretuan dago definituta, eta araudi-tresna horretan daude ezarrita horrelakoak izan ahal izateko baldintzak, baldintza material eta pertsonalak. Besteak beste azaltzen da ibilgailuak konpontzeko tailerra Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren mendeko administrazio-erregistro batean inskribatuta egon behar dela.

Zuzenbideko Oinarrietako 16. atalean adierazi den bezala, Arrasate udalerriko Garagartza auzoan dagoen ibilgailuak mantentzeko instalazioa ez da ibilgailuak konpontzeko tailerra. Gauzak horrela, Arrasateko Udalak ez dauka egoera ez protagonismorik merkatu horretan. Hain zuzen ere, Arrasateko Udalak instalazio hori sortu zuen, eta herritarren esku ipini zuen, ibilgailuen garbiketa eta olio-aldaketetatik eratorritako hondakinak bideratu ahal izan ditzaten eta, horrela, udalerriko lurzoru, ibai eta errekek kutsatzea saihestearren, hori guztia Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25 f) eta l) artikuluekin eta Euskal Herriko ingurugiroa babesteko 3/1998 Legearen 7.3 artikuluekin bat etorrira.

Inola ere ezin da esan Udalaren asmoa merkatu horretan sartzea izan denik, eta are gutxiago lehiakideak kentzea, eta are gutxiago balizko lehiakideak ibilgailuak konpontzeko merkatuaren eremuan sartzea eragozteak:

- 1) Ez du inolako protagonismorik merkatu horretan, Arrasateko Udalak ez baitu ibilgailuen konponketarik egiten instalazio horretan, konplexutasuna edozein izanda ere. Gainera, instalazioak ez dauka konponketak egiteko beharrezko azpiegitura material ez pertsonalik. Horixe esan du Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak, instalazioaren ikuskapen-bisita egin ostean. (32 folioa).
- 2) Udalak egin duen gauza bakarra aipatutako instalazioa herritarren esku ipintzea da, eta garbiketa eta zaintza lanak ere egiten ditu, gainerako udal-instalazioetan eta herri-bidean egiten duen bezala. Gainera, aipatutako jardueretatik eratorritako hondakinen kudeaketa egiten du, beste hiri-hondakin batzuekin egiten duen bezala, eskumen-titulu bera oinarri hartuta.



- 3) Arrasateko Udalaren jarduera udal-instalazio bat herritarren esku ipintzea izan da, herritarrek behar bezala bideratu ahal izan ditzaten ibilgailuen garbiketetatik eta olio-aldaketetatik eratorritako hondakinak, beste hiri-hondakin batzuekin egiten duen bezala, udalerrian ingurumena kutsatzea saihestearren, eta goian aipatu den indarreko araudia betez.
- 4) Herritarrek askatasun osoa dutenez euren ibilgailuak eurek garbitzeko eta ibilgailu horien olio-aldaketak eurek egiteko, Arrasateko Udalak nahi duena da askatasun horrek ez dezala ondorio kaltegarriak eragin udalerriko ingurumenean, eta hondakinak behar bezala bideratzeko ezarri du ibilgailuak mantentzeko instalazio hori.

Hori ez da bitxia udalen administrazio-jardunaren eremuan, indarrean dagoen legeriak ematen dizkion eskumenak erabiliz. Izan ere, jarrera bera hartzen du, edo har dezake, udalerriko beste hiri-hondakin batzuen inguruan (beira, papera, olioak, produktu toxiko edo arriskutsuak, hiri-hondakin solidoak...), arestian aipatu den lege-arau beraren babestean.

- 5) Gainera, ibilgailuak mantentzeko Garagartzako instalazioa ireki zen urtean, 1994. urtean, 2 konponketa-tailer ireki ziren Arrasate udalerrian bertan, eta urteak igaro ahala, 2009. urtera arte, gero eta gehiago izan ziren irekitako tailerrak, beste 8 konponketa-tailer ireki baitziren. Guztira 10 konponketa-tailer daude, eta horrek esan nahi du % 83 hazi dela konponketa-tailerren kopurua (59 folioa).
- 6) Halaber, ez du oztoporik eragin balizko lehiakideak merkatu horretan sartzeko, kontuan hartuta udalerriko konponketa-tailerren kopurua etengabe handitu dela 1994. urtetik, hau da, Arrasateko udalak ibilgailuak mantentzeko udal-instalazio hori ezarri zuenetik.

Horrenbestez, Arrasateko Udalak ez duenez inolako egoerarik aipatutako merkatu adierazgarrian, ezinezkoa da nagusitasunezko egoera izatea, eta are gutxiago egoera horren abusua egitea. Beraz, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2. artikulua urratu ez dela ondorioztatu da.

20. Azkenik, LDEZri jakinarazi zitzaizkion eta informazio erresebatuaren fasea eragin zuten gertakariak Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 3. artikuluekin alderatu behar dira. Arau horren bitartez, Lehiaren Defentsari buruzko legeak debekatu egiten ditu *lehia desleialeko egintzak, hain zuzen ere lehia askea faltsutzeagatik interes publikoari kalte egiten diotenak.*

Kontuan hartu behar dugu lege-agindu horrek lehia desleialeko egintzak aipatzen dituela, Lehia desleialari buruzko 3/1991 Legean aipatutako egintzak, eta bide judizialera bideratzen dituztela egintza horien kaltetunak,



lehia desleialari buruzko lege horren 18. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera. Hala eta guztiz ere, lehia desleialeko egintza horiek interes publikoari eragin diezaieketenez, jokabide horiek administrazio-bidean zigor daitezke, lehiaren defentsarako bidezko agintaritzaren bitartez. Gauzak horrela, Auzitegi Gorenak esan du<sup>3</sup> dagoeneko indargabetuta dagoen Lehiaren Defentsari buruzko 16/1989 Legearen 7. artikulua merkataritza-desleialtasuneko portaerak aipatzen dituela, printzipioz erantzun juridikoa euren ekimenpean duten enpresei bakarrik eragiten diela (bidezko ekintza zibilak erabiltzearen bitartez), eta eragindako kalte-galerak ordaintzea eragiten dutena. Beste izaera bat eskuratzen dute, publikoa, eta lehiaren defentsa zaintzeko ardura duen administrazio-agintaritzak zigor independentea ezartzeko aukera ematen du.

Dagoeneko ez dagoen Lehiaren Defentsarako Auzitegiak ere esan zuen<sup>4</sup> egintza desleialen bat lehia askearen kontrakoa zela ondorioztatu ahal izateko ez zela nahikoa desleialtasuna egotea, eta beharrezkoa zela, era berean, desleialtasun horren ondorioz nabarmen eragitea lehia askeari, merkatuaren funtzionamendua modu esanguratsuan asaldatzeko beste.

Aztertzen gabiltzan kasuan, eta aurreko zuzenbideko oinarrian adierazitakoaren arabera, Arrasateko Udalak ez du ibilgailuak konpontzeko merkatuan jarduten, eta Garagartzako instalazioak herritarren esku ipintzeak ez du inolako eraginik merkatu horretan. Gogorarazi behar dugu ibilgailuak konpontzeko tailerren kopurua nabarmen handitu dela udal-instalazioa ezarri zen urtetik, % 83, hain zuzen ere. Gauzak horrela, aztertu den jokabideak ez ditu merkatuaren baldintzak eraldatzen eta, beraz, ez du Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 3. artikulua urratzen.

21. Hala eta guztiz ere, eta aurreko oinarrietan gertakariak Lehiaren Defentsari buruzko Legearekin alderatu direla alde batera utzita, ibilgailuak mantentzeko Garagartzako instalazioa Arrasateko Udalak sortu duenez, eta arestian aipatutako aginte publikoen arabera garatzen denez bertako jarduera, zerbitzu publiko horren ohiko edo ohiz kanpoko funtzionamendutik erator litezkeen kalteak ordaintzeko, lehiaren arlotik kanpo, herri-administrazioen ondarezko erantzukizunaren bitartez bidera liteke, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean araututakoaren arabera.

## **EBAZPENA:**

<sup>3</sup> Auzitegi Gorenaren 2006ko ekainaren 20ko epaia.

<sup>4</sup> Lehiaren Defentsarako Auzitegiaren 2002ko maiatzaren 27ko ebazpena, r516/02v, Colexio de Avogados de Vigo.



**BAKARRA:** Onetsi egingo da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren ebazpen-proposamena, zehapen-espediterik ez hasteko.

Ebazpen hau LDEZri, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsua, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2010eko urriaren 8an

**LEHENDAKARIA**  
**JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA**

**LEHENDAKARIORDEA**  
**JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE**

**KIDEA**  
**M<sup>a</sup> PILAR CANEDO ARRILLAGA**

**IDAZKARIA**  
**JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI**